

## ITZALEAN

Miren Imaz

*Beasain, 17 urte*

*“Eguna goibel esnatu da! Argia, hodei  
basapiztien atzean, bere masail zurbiletan oraindik  
anpuluak dituen zigortutako ume koxkorra dirudi.  
Haizeak zauritutako mundu baten antzera  
oihukatzen du: Baina nik badakit ibilaldi honetan  
nire lagun maitearekin topo egingo dudala.”*

Algarak, jauziak, begirada samurrak, irrifar herabetiak, korrikaldi motzak..., jolasgura sartu da. Behiala, egunaren ezinbesteko partaide zen gura horrek, gaur eman du aspaldiko partez uzta nimiño bat. Nimiñoa bai, mugatua baita. Ez dago korrikaldi luzerik egiterik, ez futboleak jokatzetik, ez txirrinduan bueltatxo bat ematerik. Hogei metro karratuko gela honetan soilik ase dezake euren gura. Urte pare bat gibeleratuz, gela honetan burutzen ziren larunbateroko famili afariak, bertan ibiltzen zen emakume bat erropak lixatzen, bertan gizon bat surtarako ziren egurrak txukuntzen... etxeko sotoan. Hura amaitu zen ordea, eta gaurdaino ez da otoitz besterik egin etxearen zoko ezkutu horretan. Otoitz, neguko goiz hits batek eramandako aitaren alde; otoitz lanera joan zen izeba maitakor haren alde. Ez zuten haietaz besterik jakin. Era berean, euren alde egiten zuten otoitz, laurak batera irauin zezan.

ten. Alák eskaini die otoitzaren fruitua, alaitasuna itzuli du etxera.

Joku maltzurra eskaini bizitzak haur haiei. Maltzurra bezain goibela. Zaharrenak ezagutu ahal izan du eskolara joatea zer den. Andereñoaren irrifar goxoa dastatzeko beta izan du. Lagunekin jolas-teko aukera izan du. Aske izateko abagunea eduki du. Beste biak, ordea, hagitz ttipiak ziren hango iskanbila sortu zenean, eta ez dute etxe barruko giroa besterik ezagutzeko paradarik izan. Nonnahi aurkitzen ez den familia giroa. Beraien aita argazkietan soilik ikusi dute. Ez dute izebaren hitz goxorik oroitzen. Anaia zaharra eta amatxo besterik ez dituzte ezagutzen. Idazten eta irakurtzen erakutsi dien anaia, kartetan jokatzeko erakutsi diena, abesti bakar batzuk erakutsi dizkien anaia. Eta amatxo, egunean behin jaten eman diena, malkoak lehortzen dizkiena, uneoro patxada mantendu izan duen amatxo. Gaixoak izan du nahiko lan haurren anpuluak isiltzen, eguneroko ogia lortzen, bizimodu zail harri berak bakarrik aurre egiten. Senarraren eta ahizparen laguntzarik gabe. Bere hiru seme-alaben noizean behingo irrifarra indartzat hartuz. Irrifar xalo hura zen bizi-sua itzaltzen uzten ez zuen txinparta. Ia ohiko bilakatutako isiltasunak, anpuluak, tristurak... ez dute inar ttipi hura ezdeus izatera eramateko indarririk izan. Arras bakanak izan diren alaitasun liparrak boteretsuagoak izan dira. Boteretsuago, gero eta kaotikoago bihurtzen ari zen egoeraren aurrean. Inoiz ahul eta mendre sentitzen bazen ere, han zegoen Said.

Haren begiek islatzen zuten bizi gogoak, ez zion atzera egiten uzten. Han zeuden halaber Claudia eta Oscar ere, haien ezinegon inuzenteak ematen zion malkoak lehertzeko, ezpainetan irrifar goxo bat eratzeko eta hari guztiari aurre egiteko kementa. Begirada batean, mugimendu batean, topatzen zion zentzua biziari. Lehen hain hutsal zirenak, orain iraupenerako ezinbestekoak bihurtu dira.

Ez du inoiz ahantziko orain hiruzpalau hilabete-ko goiz eguzkitsu hartan zeharkatu behar izan zuen paisaia. Sargori esnatu zen eguna. Goizeko lehen minututik galbanak jota zeuden laurak. Aspaldiko partez egun garden bat jaio zelako irudipena izan zuen. Astebete inguru eramango zuen kalera irten gabe. Aurreko egunean jan zituzten, ordea, azken piper latak, eta jan bila atera beharra zuela bazekien. Honelakoetan bazekiten haurrek zer egin. Etxazpian egon behar ziren ahalik eta isilen amatxo itzuli arte. Udako arropa jantzi zuen eta haurren sabelak aseko zituen zerbaiten bila abiatu zen. Plaza ttipi batean, kamioi gorri baten inguruan jende multzo bat ikusi zuen. Gustura zeudela zirudien, kontu kontari kamioieko gizonak janez hornitutako poltsatxo bat luzatzen zien bitartean. Bera ere jendartean murgildu zen, inondik ezagutzen ez zuen jendearekin hasi zen berbetan. Ordu laurden igeroko zuen han, eta benetan zoriontsu izan zen mementu motz hartan. Kanpoko jendearekin amini bat egoteko beta izan zuen. Beharrik ordu laurden bat besterik ez zuen eman han. Umeak etxean bakarrik utzi zituela esan zion berarekin hiz-

ketan ari zen emakumeari. Benetan pozik aienatu zen paraje hartatik. Berrehun bat metro eramango zituen oinez. Itxaropena erein zen bere bihotz inguruko landetan. Inoiz bere herrira pakea itzuliko zelako igurikapena. Aspaldiko partez ilusioz zihoan etxera. Baina, bat-batean, zuhaitzak inarros-ten zituen haizearen indarra erabat baldartu zen. Bihotzak zauskada bortitz bat eman zion. Gibelera so egin zuen, eta haren begi gardenak lausotuz joan ziren. Ereindako itxaropenak, etsipena izan zuen fruitu eta ilusioa ezdeus izatera iritsi zen. Ez zuen bi bider ausnartu, pausoa azkartu zuen lehenbailehen etxera itzultzeko. Ezagutzen ez zuen emakume haren irudia aldentzea nahi zuen. Ez zuen ezer jakin nahi hango jendeaz. Ereindako bizia galdu duen jendea. Eguzki galdatan esnatu zen egunak ez zuen ordu gutxi batzuetako alaitasuna besterik ekarri. Egunari zerion gorritasuna, are eta gorriago bilakatu zen, jende multzo batek eskainiriko odolaren gorria bateratu baitzitzaion. Hau guztia, ordea, bere gogoeta zatarren kutxatilan gorde zuen. Goititzeko moduan zegoen jadanik ziskua, baina, bazekien oraindik irudi gehiago ere han sartu beharko zirela. Giltzaz ondo itxi zuen kutxa eta zin egin zion Alári inoiz ez ziela gomutapen haiei handik ihes egiten utziko. Beraz, ahalik eta apalen, mal-koak lehortu zituen, etsipenari uko egin zion eta ilusioari berriro ireki zizkion leihoak, eta itxuraldatu ostean, etxera sartu zen.

Egun hartan biziak lezio bat erakutsi zion. Hark bi funtsezko faktore zituela adierazi zion. Bi alo-

rrok, ona eta txarra hitzekin eman zizkion aditzera. Txarren garaia denean, etsipena lurperatu egin behar ei da, burua tente ipini eta onaren etorrera amestu. Onaren garaia denean, momentua bizi behar omen dugu, ametsak bolada txarretarako utziz. Biziak esan zion zoriontsu izango zela formula hau praktikan jarritz gero eta hala eginen zuela agindu zion. Baina aurretik, bere oroitzapen txarren kutxatilarekin zer egin behar zuen itaundu zuen eta biziak ez zion ihardetsi. Denborarekin ulertu zuen gero eta indar handiagoz lotu behar zuen kutxa zela hura, baina inoiz ez zuela zokorata eta ahantzita utzi behar. Beti eraman behar zuen berarekin, hura baitzen gizakiago izaten lagunduko zion gailua. Hura baitzen, halaber, bere seme-alabek ematen zien kemenarekin batera, irauten lagunduko ziona. Egun hartan ikasi zuen, sei urte luzetako karrera gogaikarri hartan ikasi zituen gauza guztien hirukoitza.

Laurek zekiten beraien bizietako unerik alaie-nak ez zirela haiek. Baina bazekiten, halaber, hain triste izateari utz ziezaioketela denek zerbait eginez gero. Eta lauren eguneroko jarduna zen hura. Bazekiten halaber, uneoro heriotzaren keinua das-tatzen zutela, bazekiten une tristeak, are eta triste-ago bilaka zitezkeela edonoren makalaldi batean. Bakoitzak lortutako uztarik ederrena eskaintzen zien beste hirurei, uzta gogaikarriak kutxatilan gor-deaz. Jada monotonia zen egunak nagi goibelak egitea, bai halaber, nagi haiek pozkor bilakatzen saiatzea ere.

Egun haietako bat esnatu da gaur goizean ere. Hits eta iluna bere izate horretan, baina atsekabe oro landa utzita, poztasuna bilatzen hasi dira laurak. Otoitzean egin dute saio bat. Kartetan beste bat. Solasean beste bat. Lortu dute gaur ere damua aldentzea. Baina, bakoitzak badaki harrapaketan jolastu nahi duela goibeltasunak, eta haren atzapar likatsuetatik ihes egin nahi dute. Koitauak. Beraien jolasetako isilune batean, atea jotzen duen norbait somatu dute. Beldurrak jota jarri dira, laurak bat eginda, baina, kolpe haiek erakarpen indar berezia dute. Berezitasunean ezezagun. Eta ezezagutza horrek ausardia mugatu die. Malko txepela dario Klaudiari. Saidek bihotza lehertzeaz izanagatik lehortu dio arrebari ttantta hura. Oskar ezinegonak jota dago. Harantz eta honatz begiratzen du, artegatasunaren morroi, gerta dakiokenaz kezkatuta. Baina amatxok badaki gaur ate joka datorrena ez dela bosniar soldadu malapartatu bat. Badaki, ez dela monjatxo bat diru eskean. Badaki ez dela frantziar txapel urdin bat jana ekarriz. Badaki ez dela dena ondo al doan galdetzera datorren sendagilea. Badaki babes eske datorren bizilaguna ere ez dela. Badaki, bere bihotza alai dezakeen norbaiten presentziarekin topo egingo duela. Badaki ez dela aurrerantzean bakarrik izango seme-alabak zaintzen. Badaki bera babestuko duen norbait dagoela atearen bestaldean. Badaki aunitz maite duen norbait dela.

Ez zebilen oker. Atea ireki bezain pronto, beso bakarrez inguratua sentitu da. Haren ezpainen

beste batzuekin topo egin dute. Denbora aunitz konpondu gabe zeramaten bekainen lotsaz ageri zen kilkerpareak aspaldian izan gabeko gozamina dastatu du. Bere bi semeen eta alabaren galdutako irrifarrea ikusi du. Benetako muxu epelak sentitu ditu.

Horregatik sartu da orain jolasgura sotoan. Horregatik nabari da alaitasuna etxean. Leku mugatu batean askatasun mugagabez gozatzeko parada dute. Itzalak argitasunari pasabidea ireki dio. Zorionekoak. Ez dute, ordea, oraindik behinola lanera joan zen emakumea ahantzi. Izan bedi Alák nahi duena.